

DIAGNOSIRAKO TRESNAK

Diagnosia I

Diagnosiaren lehen fasea betetzeko ikastolan egindako aurrelanak bildu eta arakatu beharko dira. Horretarako, diagnosia egiteko tresnaren 1. eranskina baliatuko dugu.

Diagnosia II

Diagnosiaren bigarren fase hau egiteko garaian bi eremu behatuko ditugu:

- Eremu pedagogikoa:

- **Gela barruko eremua** arakatzeko hainbat galdetegi baliatuko ditugu, irakasle, koordinatzaile eta zuzendariaren artean banatuko direnak, eta kasuren batean ikastolako dokumentazioa ere bai (IPK, Hezkuntza Proiektua, gidaliburuak, kanpo-ebaluazioak...).
- **Gelaz kanpoko eremua** arakatzeko, nagusiki, Ulibarri programaren Branka tresna¹ erabil daiteke eta, kasuren batean, ikastolako dokumentazioa (Hezkuntza Proiektua, herriko neurketak eta abar).

- Eremu instituzionala: Ulibarri programaren Branka tresna erabil daiteke eremu horren behaketarako.

¹ Isasi, X. eta Erriondo, L. (2000) *Neur-kareletik, hizkuntza egoeraren popatik brankara*. Eusko Jaurlaritza, Euskara Zerbitzua (Ulibarri Programa), Gasteiz.